

### Ba al zenekien?

- Datorren urterako, Gobernuak aurreikusten du BPGd-ak 50.000 milioi euroko hazkundea izango duela, baina «gastu-sabaia» — herri-administrazioetarako finkatutako gastu-muga— 1.500 milioi euro soilik handitu da, eta oraindik ere, 2010ekoa baino txikiagoa da (60.000 milioi gutxiago), baita 2013koa baino txikiagoa ere. Hazkundeak ez du murrizketak lehengoratzeko balio.
- Horren ondorioz, BPGd-aren aldean, gastu publikoaren kuantak behera egingo du berriz Espainian, eta berdin gertatuko da hezkuntzarako eta osasungintzarako gastuetan. Horrek Europatik gero eta gehiago urruntzen gaitu: politika publikoetarako, BPGd-aren %40,5 erabiliko dugu; eurogunean, berriz, %47 erabiltzen dute horretarako. Gobernuak politika ekonomikorako egindako proposamenak gure herrialdeko ongizate-estatu higatzen jarraitzen du, berez hauskorra den ongizate-estatu hori.
- Gobernuak gizarte-gastuan gehiago gastatuko duela iragarri arren, gastu horren igoera ekonomia-hazkundearen baino txikiagoa izango da: %2,8 handituko da gizarte-gastua, eta ekonomia-hazkundearen, berriz, %4,3koa izango da.

### Ba al zenekien?

- Hau da murrizketa horiek sendotu izanaren arrazoia: ez daude zerga-gehikortasuna handitzeko neurriak (kapitalaren eta aberastasunen gaineko zergak, enpresa handien mesederako kenkariak kentzea sozietateen gaineko zergan), benetako arazoa konpontzeko (**nahikoa diru-sarrera publikorik ez izatea**). Arlo horretan ere Europatik urruntzen ari gara: diru-sarrera publikoak BPGd-aren %38 dira, eta eurogunean, berriz, %46.
- Bide bakarra dago zergak jaitea eta defizita murriztea lortzeko: gehiengoarentzako behar adinakoak ez diren zerbitzu publikoak sendotzea.

### Ba al zenekien?

- BPGd-a kontuan hartuta, **inbertsio publikoen maila azkeneko 50 urteetako txikiena da** (BPGd-aren %1,9 dira inbertsio publikoak, hain zuzen ere), eta krisiaren aurreko mailatik behera dago (30.000 milioi euro gutxiago). 2018rako aurreikusitako igoera handiena gastu militarretarako izango da.

### Ba al zenekien?

- Hitzetik ekintzetara tarte handia dago: gobernuak, aurrekontuetan, errekorreko diru-sarrera publikoak aurreikusten ditu, baina 2017an, aurrekontuetan jasotakoa baino 7.000 milioi euro gutxiago bildu ziren; 2017an, gobernuak I+G+Brako aurreikusitako aurrekontuaren %30 soilik gauzatu zuen, edo mendekotasunerako aurreikusitakoaren %66; indarkeria matxistaren aurkako ituna finantzatzeko adostutakoaren %40 baino ez du sartu aurrekontuetan; Alderdi Popularrak eta Ciudadanosek, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan, Rajoyren inbestidura adostu zutenean adierazi zituzten neurrietarako iragarritako zenbatekoak baino txikiagoak aurreikusi dituzte.



# herri berri

## BATERAKO AURREKONTUAK



[cuentasparaunnuevopais.info](http://cuentasparaunnuevopais.info)



# herri berri

## BATERAKO AURREKONTUAK



### Zer ari da gertatzen 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrekin (EAO)?

Gobernuak 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek aurkeztu ditu Kongresuan, urte erdiko atzerapenez eta aurrekontuak onartzeko behar adina babesa lortzeko negoziatu gabe. **Gobernuaren ahultasuna eta liderrik eta ekimenik eza erakusten du horrek.**

Alderdi Popularrak onartutako eta Ciudadanosek babestutako proiektuaren edukia, gainera, **etorkizunerako inolako proiekturik ez dutela** berresten du. Aurrekontu horiek urte hauetan politika ekonomikoan erabilitako ereduaren jarraipena dira, eta beste **aukera bat galdu** da hazkundearen Espainiak behar dituen aldaketen mesederako aprobeztatzeko.

Ekonomia-hazkundera ez da **gizarte-aurre-  
rapenak** ekartzen ari: ez du gehiengoaren egoera hobetu, eta desoreka handiak gure gizarteko *egiturazko ezaugarritzat* ezartzen ari dira. **Aurrekontu alternatibo** batzuk behar dira, gizarte- eta ekonomia-politika berri baten zerbitzura jartzeko, «**krisiaren amaiera**» denontzako errealitate izan dadin. Horretarako, hezkuntzan, osasungintzan eta mendekotasunaren arloan izandako murrizketak lehengoratu behar dira. Baina gobernua aurkeztutako Estatu Aurrekontu Orokorrekin, aurreko urteetako **murrizketak sendotu** egingo dira.

Alderdi Popularraren politikak **ez dute Espainiako hazkunde-ereduan behar diren aldaketak lortzen laguntzen, eta Estatu Aurrekontu Orokor hauek ere ez dute hori lortuko**. Ez daude jasagarritasuna eta energia-trantsizioa bermatzeko neurriak; klima-aldaketaren aurkako aurrekontu-sailak murriztu egin dira, eta inbertsio publikoa ez da berreskuratzen; ez dago gehiengoarentzako zerbitzuaren alde egingo duen digitalizazio-prozesu bat bultzatzeko aurrekontu-sailik, ezta genero-berdintasuna bultzatzeko aurrekontu-sailik ere.

## Zer proposatzen dugu?

Gure proposamenean, lehenetsuna ematen diegu funtsezko zerbitzu publikoetan izandako murrizketak lehengortzeari, desberdintasunak murrizteari, eta gure hazkunderaren benetako eraldaketa izateko politika aktiboak erabiltzeari.

### 1. Hazkunde inklusiboa, gizarte-aurre- rapenak bermatzeko

- » Bermatutako errenta izateko benetako programa bat martxan jartzea, behar adina diru-sarrerak ez dituzten familientzat.
- » Erretiro-pentsioen errealizazio-indizea (% 0,25) kentzea, pensio guztiak urtero gutxienez KPIren arabera eguneratuko direla bermatzeko. Errealizazio-indize hori kentzen ez bada, datozen urteetan % 30eko galera egingo da pensioen balio errealean.

- » Gutxieneko pentsioen eta kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoak handitzea
- » Mendekotasunaren Legea finantzatzea, gutxieneko babes-maila bermatzeko, «mendekotasunaren linboa» amaiarazteko (300.000 pertsonak baino gehiagok eskubidea aitortuta dute, baina ez dute laguntzarik jasotzen).
- » Gazteentzako enplegu-plana, gazteak lan-merkatuan sartzeko eta emigratuak itzultzea bultzatzeko.
- » Eskola-materialaren doakotasuna, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskola-aurkertan berdintasuna bermatzeko.
- » Etxebizitzak prezio sozialetan alokatzeko plana.
- » Herri-administrazioetan kolokako enpleguarekin amaitzeko erabateko plana egitea, bai eta enplegu publikorako ezohiko eskaintza egitea ere (20.000 plaza berri).

### 2. Hazkunde morea, genero-desberdintasunak desagerrarazteko

- » Jaiotzagatiko edo adopziogatikiko baimen-sistema erreformatzea, gaur egungo aitatasun-baimena luzatzeko, amatasun-baimenarekin berdindu arte. Benetako eskubide-berdintasuna bermatzeko, baimenak berdina izan behar du guraso bakoitzarentzat, besterezina ere bai (gainerako lan- eta gizarte-eskubideak bezala), soldataren %100 jasotzen dela, eta lanpostua babestuta izanik amatasun- eta aitatasun-eskubideak gauzatzen diren aldian.
- » 0-3 urtekoentzako doako haur-eskolak.
- » Indarkeria matxistak desagerrarazteko plana: Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean onartutako neurriak berehala martxan jartzea.

### 3. Hazkunde berdea, energia-trantsizioa sustatzeko eta klima-aldaketaren erronkari heltzeko

- » Efizientzia energetikorako plan nazionala (1.300 milioi euro): etxebizitzak birgaitzeko laguntza-plana, birgaitze energetikoa bereziki nabarmenduta.
- » Mugikortasun elektrikorako plana, gasolina eta gasolioa erabiltzen duten ibilgailuak ibilgailu elektriko ordezteko. Prozesu horrek hazkunde-estrategia jasagarriagoa bultzatzen du, beste neurri hauek ere aplikatu behar dira: erregai fosilak erabiliz ekoiztutako elektrizitatearen kuota asko murriztea, eta garraioa gero eta kolektiboagoa izatea, garraio publikoaren garapenerako estrategiekin lotuta.

### 4. Digitalizazioa gehiengoaren mesederako gobernatzea

- » Ekonomiaren digitalizazioa bultzatzea (eta demokratizatzea). Gure ekoizpen-ehunaren digitalizazioa errazteko azpiegiturarako eta sareetarako inbertsioak handitzea. Horrekin bat, «prekariotasun digitaleko» forma berriak desagerrarazteko legedia onartzea.
- » Zientziaren eta I+G+Baren erreskaterako plana: inbertsioa handitzea eta emigratutako talentuaren itzulera suspertzeko neurriak ezartzea.

### 5. Nola finantzatu proposatutako erreformak? Gutxieneko diru-sarrerak ziurtatzea, ongizate-estadia bermatzeko

Gure ongizate-estatuaren birbanatze-ahalmena bermatzeko eta indartzeko, eta, aldi berean, gure ekoizpen-egituraren modernizazioa sustatzeko, ezinbestekoa izango da behin eta berriz geroratzen den zerga-erreformari heltzea. Horretarako, diru-sarrera publikoek BPGd-aren kuota handiagoa hartzeko eta Europako batez besteko parametroetara hurbiltzeko (gaur egun, BPGd-aren %8 dira), ezinbestekoa izango da zerga-gehikortasuna indartzea eta zerga-iruzurraren aurka eraginkortasun handiagoz jardutea. 2018rako Estatu Aurrekontu Orokorretan zenbait neurri sartu behar dira jada:

- » Fiskalitate berdea handitzea, Europako diru-bilketen mailara hurbiltzeko.
- » Aberastasunaren gaineko zergak berreskuratzea: aberastasun handien gaineko zerga.
- » Elkartasun-errekargu bat sortzea bankuen mozkinen gainean, bai eta finantza-transakzioen gaineko zerga bat sortzea ere.
- » Kapital-errenten gaineko zerga-tasa handitzea. Zerga-onura erregresiboak kentzea, hala nola enpresa-talde handiek sozietateen gaineko zergan dituzten zerga-arintzeak.
- » Gehikortasun handiagoa BEZari dagokionez: ondasun kulturalen eta premia biziko produktuen gaineko tasa %4ra jaiste, eta oinarriko horniduren gaineko tasa, berriz, %10era.

